



DEIALDIA, IZANGAI-ZERRENDATA BAT HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO, LANTEGI-ESKOLETAKO LANEKO ORIENTATZAILER LANPOSTUAN ALDI BATERAKO KONTRATU BIDEZ ARITZE ALDERA, IRUÑEKO UDALEAN GERTATZEN AHAL DIREN BEHARRAK ASETZEARI BEGIRA

Giza Baliabideetako zuzendariak deialdia onetsi zuen 2026ko ekainaren 25ean, honako oinarri hauekin bat:

OINARRIAK

Lehena. Deialdiaren xedea.

Deialdia iragartzen da, izangaien zerrenda bat hautaprobek bidez osatzeko, lantegi- eskoletako laneko orientatzaile lanpostuan aldi baterako kontratu bidez aritzeko, B mailan, Iruñeko Udalean aldian-aldian gertatzen ahal diren beharrak asetzeari begira.

Bigarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak.

2.1. Izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a) Espainiako nazionalitatea izatea, Europar Batasuneko estatu batekoa, edo Europako Erkidegoak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio langileen zirkulazio librea aplikatzen ahal den eremuko estatu batekoa. Halaber, parte hartzen ahalko dute Espainiako nazionalitatea, Europar Batasuneko estatu batekoa edo aipatu nazioarteko itunak sinatutako beste estatuetako nazionalitatea duten herritarren ezkontideek ere, betiere zuzenbidez bereizita ez badaude, eta, orobat, beren ondorengoek eta ezkontideenak –zuzenbidez bereizita ez badaude–, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo adin horretatik gorakoak izanda haien bizkar bizi badira.
- b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.
- c) Psikopedagogiako, Psikologiako edo Pedagogiako titulu akademikoa edukitzea, edo aipatutakoez bestelako unibertsitate-titulu akademiko bat izatea, eta gutxienez 6 hilabeteko esperientzia lanbide-orientazioan eta/edo prospekzio- eta bitartekaritza-lanetan.
Atzerrian eskuratutako titulazioen kasuan, horien homologazio-egiaztatzea eduki beharko da.
- d) Behar besteko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea bete behar dituen eginkizunetan aritzeko.
- e) Eginkizun publikoetan aritzeko desgaitu edo gabeturik ez egotea, ezta inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizita ere.
- f) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, edo hitz eman, adierazteko ez dutela, beren estatuan, Funtzio Publikoan sartzea galarazten dien diziplina-zehapen edo kondena-penalik.



2.2. Izangaiek agirien bitartez egiaztatu beharko dute deialdi honen 2.1 apartatuan eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko unean.

2.3. Izangaiek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean ez ezik, hala dei egiten zaienean nola kontratazio-aldian ere.

Hirugarrena. Eskabideak.

3.1. Eskabideak aurkezteko epea.

Deialdian parte hartzeko eskabideak hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdia iragartzeko aipamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta. Deialdi honen testu osoa eskuragarri egonen da Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean. Eskabideak aurkezteko ezarritako epea luzaezina da.

3.2. Eskabidea aurkeztea eta formalizatzea.

Hautapen-prozesu honetan parte hartu nahi dutenek modu telematikoan aurkeztu beharko dute eskabidea, Internet bidez, www.pamplona.es/eu webgunean, honako nabigazio-bide honi jarraikiz: “Izapideak eta lizitazioak”, “Lan-eskaintzak”, “Enplegu publikoa”, “Enplegu publikoko deialdiak”, deialdi honi dagokion aipamenean.

3.3. Tasak.

Azterketa-eskubideengatik eta espedientea formalizatzegatik ordaindu beharreko tasa 11,40 eurokoa da. Tasa telematikoki ordainduko da, eskabidea formalizatzeko unean, ordaintzeko sistema seguru baten bidez.

Azterketa-eskubideen tasa ordaintzeak ez du inola ere ordeztuko eskabidea behar den epean eta moduan aurkeztu beharra.

3.4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.

3.4.1. Eskabidea online aurkezteko unean, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Deialdian parte hartzeko baldintza gisa eskatutako titulazioen fotokopia.

Nahi duenak, eskabidea aurkezteko unean, kudeatzaileari baimena ematen ahalko dio titulua Hezkuntza Ministerioaren Datuak Egiaztatzeko Zerbitzuan kontsultatzeko, baina aukera horrek ez du beti bermatzen egiaztatuko denik. Hori gertatzen baldin bada eta izangaiek ez badu titulazioaren kopiarik aurkezten, onartuen zerrendatik kanpo geratuko da.

Atzerrian eskuratutako tituluaren kasuan, dagokien baliozkotzea edo, bestela, horren homologazio-egiaztatzea aurkeztu beharko dute.

- b) Psikopedagogia, Psikologia edo Pedagogiakoaz bestelako unibertsitateko titulu akademiko bat alegatzen denean, lanbide-orientazioan edo prospekzio- eta bitartekaritza-lanetan gutxienez 6 hilabeteko esperientzia duela egiaztatzen duten agiriak.

3.4.2. Desgaitasunen bat aitortua duten izangaiek egoera hori egiaztatu beharko dute.

Horretarako, honako agiri hauetako bat aurkeztu beharko dute:

- IMSERSOk edo autonomia-erkidegoan eskumena duen organoak emandako ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, prestazio bat jasotzeko eskubidea onartzen diona hauetakoren bat izateagatik: ezintasun iraunkor osoa, ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia.

Halaber, denboraren eta baliabideen aldetik behar dituzten egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte –beharrezkotzat joz gero–, eskabidean bertan adierazita, eta, horrez gain, aparteko orri batean azaldu beharko dute zer-nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen dituzten.

3.4.3. Deialdian parte hartu nahi duten eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek baldintza hori egiaztatu beharko dute, genero-indarkeriako delitu batengatik kondena-epaia, babes-agindua edo genero-indarkeriaren biktimaren aldeko kautelazko neurri bat erabakitzen duen beste edozein ebazpen judizial aurkeztuz, edo Ministerio Fiskalaren txostena aurkeztuz, non adieraziko baita demandatzailea genero-indarkeriaren biktima delako zantzuak daudela. Halaber, genero-indarkeriazko egoerak egiaztatzen ahalko dira gizarte zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimentzako administrazio publiko eskudunaren harrera-zerbitzuen ziurtagiriaren eta txostenaren bidez.

3.4.4. Agiri horiek aurkeztzen ez dituztenak ez dira deialdian onartuak izanen, eta baliorik gabe geldituko dira haiek gauzatutako egintza guztiak, deusetan galarazi gabe parte hartzeko eskabidean faltsukeria egiteagatik legokiekeen erantzukizuna.

Aski izanen da agirien kopia soilak aurkeztea; hala ere, emandako datuak edo agiriak okerrak edo faltsuak badira, horrek berekin ekarriko du horrelako kasuetarako ezarritako erantzukizun penalak, zibilak edo administratiboak eskatzea.

Laugarrena. Izangaia onestea. Behin-behineko zerrendak eta behin betikoak.

4.1. Eskaerak aurkezteko epea amaiturik, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Iruñeko Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko da.

4.2. Egun horretatik aitzina, baztertutako izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko edo, hala behar izatera, egindako akatsak zuzentzeko, izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzean adierazten den izapiderearen bidez.

4.3. Behin erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta erreklamazioak ebatzita, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako zuzendariak onetsiko du izangai onartuen eta baztertuen behin

betiko zerrenda, eta agindua emanen du hori Udalaren webgunean argitaratzeko. Zerrendarekin batera, deialdi honetan aurreikusitako hautaprobea egiteko eguna eta tokia ere emanen dira jakitera.

Izangaietan inor bazterturik ez bada, behin betiko zerrenda zuzenean onetsi eta webgunean argitaratuko da, hautaprobea egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

4.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa-eskubideak itzuliko baldin eta baztertuak izan badira beraiei egozten ahal zaizkien arrazoiengatik.

4.5. Onartuen zerrendan agertzeak ez du esan nahi izangaiei aitortzen zaienik deialdietan eskatutako baldintzak betetzen dituztela. Izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa edo Administrazioaren eskuetan dagoena aztertzean ondorioztatzen bada ez dutela betetzen eskatutako baldintzaren bat, interesdunek deialdian parte hartzeagatik bereganatutako eskubide guztiak galduko dituzte, deusetan galarazi gabe faltsukeria dela-eta legezkiekeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Bosgarrena. Hautapen-prozesuaren garapena eta balorazioa.

Hautapen-prozesuak fase bakarra izanen du: test motako proba bat.

5.1. Test motako proba

Izangaiek test erako galderak dituen galdetegi bat erantzun beharko dute idatziz, epaimahaiak aurrez adierazitako gehieneko denboran. Galderak deialdi honen I. eranskinetako gaitegian agertzen diren gaiei buruzkoak izanen dira. Hiru aukera egonen dira galdera bakoitzari erantzuteko, eta horietako bat baino ez da izanen baliozkoa.

Probak gehienez ere 100 puntuko kalifikazioa izanen du. Proba egin aurretik zehaztuko dira hori baloratzeko irizpideak eta nola zigortuko diren akatsak erantzun anitzeko galderetan.

Proba hau gaindituko dute ezarritako gehieneko puntuazioaren % 30 (30 puntu), gutxienez, lortzen duten izangaiek.

5.2. Probarako deialdi bakarra egingen da, eta izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, AIza, pasaportearen edo gidabaimena aldean dutela azalduko dira. Agertzen ez diren edo nortasuna egiaztatzen ez duten izangaiak baztertua geratuko dira.

5.3. Hautaprobea egin bitartean, beharrezko egokitzapenak ezarriko zaizkie, probak egiteko denboraren eta bitartekoen aldetik, desgaitasunen bat aitortua eduki eta eskabidean hala eskatu duten izangaiei.

5.4. Proba egin ondoren, Udalaren webgunean argitaratuko dira izangai bakoitzak lortutako emaitzak.



Probaren emaitzaren aurka erreklamazioa paratzen ahalko da, 3 egun balioduneko epean, emaitzak Udalaren webgunean argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuta, Udalaren edozein erregistrotan eskabidea aurkeztuta.

Seigarrena. Kalifikazio-epaimahaia.

6.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua: Ricardo Elizalde Abrego, Iruñeko Udaleko Enplegu programen arduraduna.

Ordezkoa: Iñaki Amigot Remón, Iruñeko Udalaren Aranzadi Lantegi Eskolako zuzendaria.

1. epaimahaikidea: Jose Cosín Reta, Iruñeko Udaleko Gizarte Ekintzako alorreko enplegu-teknikaria.

Ordezkoa: Juan Ignacio Barberena Biurrarena, Iruñeko Udalaren Landaben Prestakuntza Zentroko zuzendaria.

2. epaimahaikidea: Sandra Sorbet González, Nafar Lansareko goi-mailako enplegu-tituluduna.

Ordezkoa: Virginia Eraso Barrio, Iruñeko Udaleko Gizarteratze- eta Laneratze-programaren arduraduna

3. epaimahaikidea: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Ordezkoa: Iruñeko Udaleko Langileen Batzordeko ordezkari bat, Batzordeak berak izendatua.

Idazkaria: Raquel Pérez García, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

Idazkari ordezkaria: Beatriz Martínez Buldain, Iruñeko Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria.

6.2. Hautaprobak egiten hasi aurretik eratu beharko da epaimahaia. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, gutxienez kideen gehiengo osoa bildu gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, epaimahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala behar izatera, haien ordezkoei, kontuan harturik ordezkari izaten ahal direla, baita ere, epaimahaikide ordezkari gisara izendatutakoak, bigarren ordezkari gisa beharrezkoa izanez gero.

6.3. Kalifikazio-epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari hori jakinarazi, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen horretarako ezarriak dauden arazoak suertatzen badira.

Izangaiek, halaber, zilegi izanen dute epaimahaikideak errekusatzea, aipatu inguruabar horiek gertatzen badira.

6.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatzeko eta aplikatzeko moduari buruz sortzen ahal diren gorabehera guztiak.

6.5. Epaimahaiak aholkulari adituak deitzen ahalko ditu proba guztietarako nahiz batzuetarako. Aholkulari horiek laguntza emanen diote epaimahaiari, betiere beraien espezialitate teknikoei bakarrik helduta.

Zazpigarrena. Gainditu dutenen zerrenda.

7.1. Behin proben kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak argitara emanen du Udalaren webgunean deialdia gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako puntuazio osoaren hurrenkeran.

Halaber, epaimahaiak Giza Baliabideetako zuzendariari igorriko dio zerrenda, onetsi dezan, hautapen-prozesuaren espediente osoarekin batera.

7.2. Izangaien puntuazioan berdinketarik gertatuz gero, kalifikazio-epaimahaiak ebatziko ditu, proba hasi aurretik ezarritako irizpidearen arabera, eta, beste erremediorik ezean, Giza Baliabideetako Alorrean xede horretarako eginen den zozketaren bidez, berdinduta dauden izangaiei deituko zaielarik zozketan egon daitezen.

7.3. Izangai-zerrendak izangaiei deitzeko hurrenkerarekin bat etorri onetsi aurretik, osasun-azterketa bat egiten zaie desgaitasuna egiaztatu duten izangaiei, lanposturako gaitasuna zehazte aldera.

Zortzigarrena. Izangai-zerrendak eta dei egitea.

8.1. Behin jasota hautapen-prozesuaren espediente osoa, Giza Baliabideetako zuzendariak ebazpen bidez onetsiko ditu izangai-zerrendak, izangaia deitzeko hurrenkerari lotuta, eta Udalaren www.pamplona.es/eu webgunean argitaratuko dira.

Arau honek aipatzen duen zerrendako izangaiei deitzea honako arau hauetan ezarritakoarekin bat egiten da: Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak, deialdi honen oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrek 2017ko apirilaren 25ean onetsitako Erabakia –langileak administrazio araubidean kontratatzea erregulatzen duena– eta haren eguneratzeak, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauak ere.

8.2. Deia egiterakoan, aintzat hartuko da Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren testu bateginaren zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, eta horretarako, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaiak egoera hori egiaztatu beharko dute organo eskudunak egindako jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua edo legeekin bat kautotua aurkeztuta.

Momentu horretan eskatzen ahalko zaizkie deialdi honetan eskatutako jatorrizko dokumentuak edo fotokopia konpultsatuak edo legeekin bat kautotutak.

8.3. Halaber, 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoari men egiten zaio, eta, horrenbestez, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendetan hamar plazatik bigarrena gordeko da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek beteak izateko, betiere kasuan kasuko hautaprobak gainditu badituzte eta haien egoera frogatzen badute.



Bederatzigarrena. Errekurtsoak.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkezten ahal da, deialdia egin duen udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aitzina kontatuta.

Deialdi honen nahiz haren oinarrien eta hura aplikatzeko egintzen aurka, errekurtso hauetariko bat paratzen ahal da, aukeran:

- a) Berraztertzeko errekurtsoa, egintza gauzatu duen organoari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
- b) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.
- c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko administrazioarekiko auzien atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.

Udalaren webgunean argitaratuko dira hala jarritako errekurtsoak nola haien gainean emandako ebazpenak, hautapen-prozesu honetako interesdunei jakinarazteko eta dei egiteko.

Iruñean, 2026ko ekainaren 25ean. Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Burgui Vergara.

I. ERANSKINA GAITEGIA

1. gaia. 3/2023 Legea, otsailaren 28koa, Enpleguari buruzkoa.

- I. titulua: Enplegu-politika:
 - I. kapitulua. Xedapen orokorrak;
 - II. kapitulua. Gobernantza;
 - III. kapitulua. Enplegu-politika planifikatzeko tresnak.
- III. titulua: Enplegu-politika aktiboak:
 - kapitulua. Xedapen orokorrak;
 - II. kapitulua. Enplegarritasuna;
 - III. kapitulua.- Bitartekotza;
 - V. kapitulua. Enplegu-politiketan lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak.
- IV. titulua: Zerbitzu bermatuak, konpromisoak eta zerbitzu-zorroa.
 - I. kapitulua. Zerbitzu bermatuak eta enplegu-zerbitzuen eskatzaileen konpromisoak;
 - II. kapitulua. Zerbitzu-zorroa.

2. gaia. 438/2024 Errege Dekretua, apirilaren 30ekoa, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komuna eta otsailaren 28ko 3/2023 Legea, Enpleguari buruzkoa, ezarritako zerbitzu bermatuak garatzen dituenak.

- I. kapitulua. Xedapen orokorrak.
- II. kapitulua. Enplegu- eta zerbitzu-eskaerak.
- III. kapitulua. Zerbitzu bermatuak eta osagarriak, eta konpromisoak Enplegu Sistema Nazionalaren eremuan.
 - 1. atala. Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komuna. 1. azpiatala. Enplegurako orientazio-zerbitzu pertsonalizatua, integrala eta inklusiboa.
 - 3. atala. Enplegu-zerbitzuen erabiltzaile diren pertsonen, enpresen eta erakundearen konpromisoak.
- IV. kapitulua. Zorro komuneko zerbitzuak eta zerbitzu instrumentalen bermea.
 - 1. atala. Zorro komuneko zerbitzuak
 - 2. atala. Zerbitzu instrumentalen bermea
- V. kapitulua. Jarduera-akordioa.

3. gaia. ESS/381/2018 Agindua, apirilaren 10ekoa, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komunaren protokoloak garatzeko erreferentziazko gida teknikoa onesten duena.

- 1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.
- Eranskina: Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komunaren protokoloak garatzeko erreferentziazko gida teknikoa. Lanbide Orientazioko Zerbitzuaren protokoloak.

4. gaia. 818/2021 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Enplegu Sistema Nazionalaren enplegua aktibatzeke programa komunak arautzen dituenak.

- I. kapitulua. Xedapen orokorrak.



- V. kapitulua. Enplegu-politika aktiboen programa komunak.
 - 2. atala. 2. ardatzeko programak («prestakuntza»). 1. azpiatala. Enpleguko eta prestakuntzako esperientzia-programak.
- 5. gaia. Gazte-bermea. 18/2014 Legea, urriaren 15ekoa, hazkundera, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onesten dituen.
 - IV. titulua. Enplegarritasuna eta okupazioa sustatzeko neurriak.
 - I. kapitulua. Gazte Bermea Sistema Nazionala.
 - ✓ 1. atala. Xedapen orokorrak.
 - ✓ 2. atala. Gazte Bermea Sistema Nazionala. 2. azpiatala. Gazte Bermea Sistemaz Nazionalaren erregistratzea. 3. azpiatala. Datuak aldatzea eta sisteman baja hartzea, 101. artikulua. 4. azpiatala. Gazte Bermea Sistemaz Nazionalaren arreta.
- Ebazpena, 2021eko ekainaren 24koa, Enpleguko eta Gizarte Ekonomiako Estatu Idazkaritzarena, 2021eko ekainaren 8ko Ministro Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez Gazteendako lan duinari Gazteendako 2021-2027rako Berme Plus Plana onetsi zen.
 - 4. Ekintza espezifikoak: jarduketarako ardatzak eta proposatutako neurriak: 2. ardatza. Prestakuntza: 1. blokea: Txandakako prestakuntza, lantegi-eskolen bidez. Neurriak.
- 6. gaia. 30 urtetik beherako gazte langabeak praktiketan kontrata ditzaten sustatzeko dirulaguntzak. 1496/2017 Ebazpena, maiatzaren 23koa (2017ko 110. NAO, ekainaren 8koa), Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, 30 urtetik beherako gazte langabeen kontratazioa sustatzeko dirulaguntzak arautzen dituen, eta apirilaren 16ko 47E/2018 Ebazpenak, otsailaren 14ko 233E/2023 Ebazpenak eta otsailaren 14ko 188E/2024 Ebazpenak aldatua.
- 7. gaia. 30 urtetik beherako langabeak espezializazio adimentsuaren estrategiaren lehentasunezko arlo ekonomikoetan kontratatze dirulaguntzak. 2188/2017 Ebazpena, uztailaren 4koa, (2017ko 143. NAO, uztailaren 26koa), Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, deialdi bat onesten duena espezializazio adimentsuaren estrategian finkatutako lehentasunezko arlo ekonomikoko enpresetan 30 urtetik beherako gazte langabeen kontratazioa sustatzeko, eta apirilaren 17ko 52E/2018 Ebazpenak, otsailaren 10eko 57E/2021 Ebazpenak eta abuztuaren 16ko 12800E/2022 Ebazpenak aldatua.
- 8. gaia. Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia. Eguneraketa: 2021-2027
 - 1: Sarrera eta testuingurua:
 - 1.1 Sarrera: S3tik S4ra;
 - 1.2 Europako testuinguru berria.
 - 3: S4 estrategia:
 - 3.1 S4 strategiaren ikuspegi strategikoa;
 - 3.2 S4 strategiaren lehentasunezko gaiak.
- 9. gaia. Nafarroako Lan Merkatuaren Txostena. 2025eko datuak. Argitalpen urtea: 2026 Lan eta Gizarte Ekonomiaren Ministerioa. SEPE.
 - 5. Enplegu-joerak eta -aurreikuspenak. 5.1 Enpleguaren joerak; 5.2 2026-2028 aldirako aurreikuspenak.

10. gaia. 659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duena.

- Atariko titulua.
- I. titulua Lanbide Heziketaren antolaketa, modalitateak eta plangintza.
 - I. kapitulua. Lanbide Heziketako prestakuntza-eskaintzaren antolaketa.
 - II. kapitulua. Prestakuntza-eskaintzen alderdi komunak.

11. gaia. 659/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duena.

- II. titulua. Lanbide Heziketako Sistemako Graduak.
 - I. kapitulua. A gradua. Gaitasunaren egiaztapen partziala.
 - II. kapitulua. B gradua. Gaitasun-ziurtagiria.
 - III. kapitulua. C gradua. Profesionaltasun-ziurtagiria.
 - IV. kapitulua. D. gradua. Prestakuntza-zikloak.
 - V. Kapitulua. E gradua. Espezializazioko ikastaroak.
 - VI. kapitulua. Baliozkotzeak, salbuespenak, baliokidetasunak eta homologazioak.

12. gaia. 1699E/2026 EBAZPENA, apirilaren 10ekoa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez deialdia eta oinarri arautzaileak onesten baitira dirulaguntzak emateko lantegi-eskolak egin daitezen.

13. gaia. Iruñeko Udalaren lantegi-eskolak.

14. gaia. Iruñeko Udalaren prebentzio- eta jarduketa-protokoloa sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurka.

15. gaia. Iruñeko Udalaren Energia Trantsiziorako eta Klima Aldaketarako 2030 Estrategia: betearazpen-laburpena.

16. gaia. Genero-berdintasuna: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko.

- Atariko titulua.
- I. titulua: Berdintasun-printzipioa eta diskriminazioaren kontrako babesa.
- II. titulua: Berdintasunerako politika publikoak;
 - kapitulua: printzipio orokorrak.
- V. titulua: Berdintasun-printzipioa enplegu publikoan, I., II. eta III. kapituluak.